





M- 56196
f- 56935

ATV
25557



- EUSKAL -
ANTZERKIA



OSTEGUN GIZENA



NESKA-MUTILENTZAT
ANTZERKI-ALAIA
EKITALDI BATEAN



EUSKALTZALEAK ARGITARAZIA

1930

II

Navarro, Del Teso y Comp. Etxea. - Tolosa.



ITZAUREA

Antzerki-alai bat eskatu zidaten, ezez, xaloa, nexka-mutilen giñokoa.

Bide ta bidexka askotatik jo diteke elburu ori irixtearen. Neri bañenak agindu-ta, nexka-mutilak egokien ta zuzenen, eskolan arki ditezkelarik irudituzait. Ta eskolan bertan, egunik pozkariena, alaiena, noski, eskola-jardunik gabekoa: au da, osteguna. Ostegun guzien artean, beriz, aundiena zein dan ez dakin aurik gba ote da?

Ona emen, bada, nere aukeraren zergatia ta izena: “OSTEGUN GIZENA”.

Antzerkitxo onen izkera ta zuta-zeñara umeen adimenaren neuriko egiñak izan dira naiz eta ofetarako, saritan, erderakada ta umekeri zenbaitzuek erabili bear izan ba-ditut ere.

Umeen par-eragile bizkoñenak itzen joku ta izkirimiriak omen dira. Au Freud'ek esana da ta izana ere onela dala derizkiot. Ta lagun urkoaren utsegite ta markukeriak — norberak ditugu gereak — umeengan sortzen omen ditu pozkario ta par-zantzo erosoetik.

Oñegatik, ez beza iñork gaizki artu, ez ba zaie gordetzen, antzerkitxo onetan agertzen diran maisu-maistrari, bestela zor zaien ta dagokien itzal ta begirunea.

“OSTEGUN GIZENA” ez du irakaslaria izan nai, alai ta iñitsua baño. Ez aztu aurrek berak sasi maisu-maistra egiñik azaldu bear dutela.

Aolku zara da: «misce stultiam consiliis brevem». Esanak esan naikoa ote dan nago.

Lan txikarari itzaure labura.

Egilea'k

IRUDIGILEAK

Maisua *Giza-seme luze ta meafa*

Maistra andre *Gizen ta guria*

Martin Gaizto *Eskola-mutila*

Joxe Biurfi , ,

Potxolo , ,

Mirentxu , *neskatxoa*

Guadalupe , ,

Terexa Txiki *Eskolako neska txikiena*

Aguazila

Neska-Mutilak

6

Ekitaldi Bakaña

Ikastetxe edo eskola bat bañendik ikusia. Oi diran mai, alki, irudi ta tresnak. Leio bat ta ate bat kalera bañoialean. Edozein aldetan, eskubitan ala ezkeretan beste ate bat Maisuaren bizi-lekura daramana.

Lenengo Ageraldia

Maisua ta Maistra

Maistra ¿Gaur, umeai nola agindu diezu eskolara etortzeko?...

Maisua ¿Nola? ¿Nola?... ¡Kasketak emanda!

Maistra Ostegun gizona izan ta...

Maisua Oregatik bada; osteguna gizona, dalako ta ni mea naizelako.

Maistra Beste urteetan ostegun gizen egunez ez genuen eskolarik zabaltzen.

Maisua Gizona dalako, osteguna, zabaldu bear degu bada.

Maistra Ikusiko dezu nola gaur eskola utsik geldituko dan.

Maisua ¿Ni ez al naiz ifork?

Maistra Zu, bakarik, zera... «zero»; utsa. ¡Ez! Bateko mea. Ta batari ezkeraldian utsa jafi-ta ba-dakizu zer gertatzen zaion. Eskola ikaslerik gabe... ¡utsa!

Maisua Ta gauñ eskolara ez datorenari... zigofa.

Maistra ¡Okefago! Gutxiago etofiko dira.

Maisua ¿Zer bada?

Maistra ¡Beraz! Zuk zigofa eskeñi ta etxean, beriz, txistofa emango die...
¡Ostegun gizona baita!

Maisua ¡Ori da! Atera zaite umeen alde.

Maistra Ez; ni txistofaren alde atera naiz.

Maisua Atzo agindu nien mutil guztiai, gaur eskola izango zala... ¡ta izango da!

Maistra Nik nere neskatxoai ez etortzeko agindu nien, ta ez dira etofiko.
¡Ostegun gizona! gero, bostetan, «tian» etxean izeba. ¡Ez, ez! Izeba ren etxean «tia» artu bear degu.

Maisua «Tia» ta izeba... alkarfen antzekoak.

- Maistra** Ez bada; alkatearen andrea ere gurekin izango degu. Oso lagun-arte ona, ta txokolate ohea.
- Maisua** ¡Bejuandizula! Emen gelditzen naiz nere mutilen zai.
- Maistra** Alpefik. Etxe askotatik ez zizkitzuten bidaliko.
- Maisua** Gurasoak bidaliko zituzten. Orain, zeintzuek «pipeña» egingo duten, gutxi-gora-bera ba-dakit: Martin Gaizto, Joxe Biuri ta... olako batzuek.
- Maistra** Martin ta Joxe oriek beñere etorriko ez ba'lira obe. (*Au esan orduko biak atetik, zeletan bezela, agertuko dute burua*). ¡A zer nolako bi piztil!
- Maisua** Pizti oiek ez gañerako guztiak etorriko dira zintzo asko. Usokumeak bezela.
- Maistra** ¡Bai zera! Gaur umeak goiko plazan geldituko zaizkitzu. ¿Ez al dakizu zezenak ta mozoñoak ta soñu, dantza ta ez dakit zenbat jai antolatu dituztela? ¿Ostegun gizona dala?
- Maisua** Eskola-ondoren ere jaiak ikusteko beta gelditzen da. Ta gaur «pipeña» eginten duanari...
- Maistra** (*Dijoalarik*). Pipefik gabe txistoña motela dala...
- Maisua** (*Dañakiola*). Bizituko ditut nik zigoraz... (*Bijoaz*).

BIGAREN AGEÑALDIA

Martin Gaizto ta Joxe Biuri

- Martin** (*Sartuaz*). Joan dituk.
- Joxe** ¿Bañura sartu al dira?
- Martin** Zigañoa piztutzero joan dek.
- Joxe** Zigañoa ez; zigoraren bila joan dek.
- Martin** ¿Ta zer dek zigor?
- Joxe** ¿Zigor? ¡Makila, motel!
- Martin** Gu ez gatzok joko. Eskolara zintzo etorri gaituk beintzat, ta «zezenetara» ibiltzeko adarrik ekañi dizkiat. (*Mantal azpitik adarrik atera bitza*).
- Joxe** Bai bañan... gaur mutilenzat eskolik ez zegola esaten ibili gerala jakiten duanean maixuak... ta neskai beñiz berak eskola badutela ta etortzeko esaten ibili gerala jakiten duanean... Biak maisuak eta maistrak ori jakiten dutenean...
- Martin** Orduan zigor bat gutxi izango dek... Ez ditek jakingo.
- Joxe** I ibili intzan, ¿e?... Nexkai ta mutilai... Nik ez nian nai izan.

- Martin** ¡Ez jauna! Ik ere Potxolo'ri esan ioken.
- Joxe** Ura, ura... banekitxian etofiko zala-ta.
- Martin** Ez dek etofi bada.
- Joxe** Nexkak ere ez zetozek.
- Martin** Aiek bai etofiko ditukela: arkumeak bezela. Nexkak ez zekitek pipefik egiten. Ikaratiagoak dituk.
- Joxe** Naiago ditek eskolara etofi, bai, bestela etxean amak platerak garbitu-arazten zizkiotek eta.
- Martin** Nere etxean ez; zakurak mingañakin garbitzen dizkik.
- Joxe** Aizak... Inor besterik ez zetořek.
- Martin** Ori beař diagu ba da. ¡Aufa, ia! Ola maisuak beriala bidalıko gatxok. Artu itzak adařak. I zezena intzala.
- Joxe** ¿Beltxa ala gořia?
- Martin** ¡Itxoin! (Ateruntz begiraturik). Beidok zein zetořeken.
- Joxe** ¡Potxolo!
- Martin** Ez dek sartuko bada. (Kařaxika). ¡Txeletero! ¡Txeletero! (Jose'k ere oju egiten du).

(Potxolo'k, bildurtuta atean agertu ordudo itzul egiten du.
Maisua deadařak entzunik ateratzen da).

IRUGAŘEN AGEŘALDIA

Lengoak ta Maisua

- Maisua** ¿Zer dira deadař oiek? ¿Zuek al ziřaten? ¿Nun dira besteak? (Bi mutikoak, laisterka, bere alkietan eseri ta izututa itzik esan gabe gelditzen dira). ¿Zeņek atera ditu deadař oriek? Zu, Martin.
- Martin** Ez jauna ez; ez ditut adařak atera.
- Maisua** ¿Ez dituzutela atera deadařak? Nere belafiak zulatzerano.
- Joxe** (Martin'i). ¡Ixilik agol Lengo kařatxiengatik esaten ari dek-eta.
- Maisua** ¿Beste guztiak nun dira? ¿Ez al dakite gaur eskolara etofi beař dala? Ez badatoz aguro aguazila bialduko diet bila. (Ixilunea). Zuek etofi izateak ařitzen nau.
- Martin** Nai ba du joango gera.
- Maisua** Joan ¿e? Emen geldi. Ta lezioa ez badakizute...
- Joxe** Ondo ikasia degu.
- Maisua** Ea, Martin. ¿Munduak zenbat zati ditu?

Martin Munduak... munduak...

Maisua Bai, lurbira edo munduak.

Martin Bi: mundu au ta beste mundua.

Maisua ¡Astakilo ez bestena! I beintzat beste munduan ez aiz inpernutik uruti izango. Gaur Jeograpi'ko lezioa ondo ikasi arte ez zerate eskol one-tatik irtengo. Zu, Joxe: ¿Zenbat dira?

Joxe Bi: itxasoa ta legoia.

Maisua Zuek bai zeratela bi nun bizi zeraten ez dakizutenak.

Martin Bai jauna bai: ostegun gizenean.

Maisua ¡Ederkil Ori ez zaizute aztutzen; ba, gaurko egunak ez dizute gaitzik egingo. Biok ementxe. Aguazila'ri esatera noa kalean bilatzen dituan mutil guztiak eskolara bialtzeko. Ta bitartean ez badituzute ondo ikasten, zenbat zati dituan munduak; zenbat bizilagun, eñen izenak ta gañerakoak... Ba zaudezteke pixka baterako. (*Bijoa*).

LAUGAREN AGEÑALDIA

Martin ta Joxe

Martin Orain ikas zak Jeografia oñenbeste izenekin. (*Gogo txarretik liburuari begiratuaz*).

Jose Ara: munduko zatiak emen zeudek. Asia...

Martin Ez asi emen, motel; biar ikasiko dizkiagu.

Joxe Beidok... Asia'n zeudek: Afagnistan, Belukistan, Turkestan...

Martin Ori jafi duanak apustu egingo diat ez zekikela nun dagon Satufaran. Gaur jostatu gaitezen. Ona adafak. (*Mantal azpitik ateriaz*).

Joxe Ni zezen beltza niñuala.

Martin Bai, bai. (*Mantala bi eskuetan artu-ta «zezena» toriatuko du abesturik*).

Zezena dator arkupetatik

txispa dariola adafetatik

etc., etc.

Maisua dator bere etxetik

Zigoia konkorduna arturik...

BOSTGAÑEN AGEÑALDIA

Lengoak ta Potxolo

- Potxolo* ¿Zezenetara al zabiltzate?
- Martin* (*Jokua geldituaz*). ¡Ez! ¿Zertara etoñi aiz i eskolara?
- Potxolo* ¿Zuek zertara etoñi zerate ba?
- Joxe* Joan adi; obe dek. Ez dek beste iñor etoñi.
- Potxolo* Zuek joaten ba zerate joango nauk.
- Martin* Ik artu egingo dek ¿e? (*Ukabiñaz zematuz*).
- Potxolo* Atera adi nai deken lekura.
- Joxe* Ez asi Uzkudun'en antzera. Goazen beñiz zezenetara. (*Martin'i adañak emanaz*). I zezen. Ta i zaldi, Potxolo.
- Potxolo* Ni beti zaldi ez ¿e?
- Joxe* Ez, txandaka. (*Potxolo gañean jartzen zaio*). ¡Añe!
- Martin* Jañi ¿e? ¡Ta-ra-ri-ti-ra-ti-ra-ria raaa! (*Auaz otsa egiñaz*). Zezena ba-ziak... (*Biai erasotzen die luñera botiaz*).
- Joxe* ¡Ail ¡ail
- Potxolo* ¡Astoa! (*Zutituaz*).
- Martin* Ez, i zaldia aiz.
- Potxolo* Ez, au. (*Martin'engatik*).
- Martin* Ni zezena nauk.
- Joxe* Beñiz ¿e? Bañon luñera ez botatzea.
- Potxolo* Ez, ez nabiltxok. Maisua etortzen ba dek...
- Martin* Potxolo ire eguna izango dek gaur, e? Ostegun gizona.
- Joxe* ¿Etxean txistoñ egitan emango ziaten eskolarako?
- Potxolo* Bai, txistoñ ta dirua.
- Martin* Emaiguk koska bana.
- Potxolo* (*Sabela ikutuaz*). Emen bañuan zegok.
- Joxe* ¿Zenbat diru dek?
- Potxolo* (*Zakelean txanpon-otsa aterioz*). Ara. (*Erakutziatz*).
- Martin* (*Besoan jo-ta txanponak luñera botatzen dizkio*). ¡Añanpalol
- Potxolo* I sei zakurñandi dituk ¿e?... (*Dirua jasotzeko makurtzen da*).
- Joxe* Maisua zetoñek, maisua... (*Irurok aguro alkitan eseritzen dira*).

SEIGAÑEN AGEÑALDIA

Lengoak ta Maisua

Maisua (Sartuaz). ¿Zer da emengo iskanbila?... .

Potxolo Ez jauna, ez; nere txanpon-bila.

Maisua ¿Iru bakañik ta istilu ori?... ¿Nun dira besteak? Zu: (*Potxolo'ri besotik eldurik*). ¿Nola etofi zera ain berandu?

Potxolo Eskolik ez dagola zabaldu dute.

Maisua (Asa're). ¿Zeñek zabaldu du ori? ¿Zeñek agintzen du emen? (*Martina Joxe'k kiñuka ta ukabiñ erakutsiaz ez esateko adierazten diote*).

Potxolo Ez dakit.

Maisua ¿Zuri eskolara ez zala etofi bear zeñek esan dizu? (*Gogoñartuaz*)

Potxolo Neri... Martiñ'ek.

Maisua (Irakiten). ¿E? ¿Gizona! ¿Zuk... (*Joxe'rengana urbilduz*).

Joxe (Ikaraz). Ez jauna, ez. Onek... (*Martiñ'erengatik*). Martiñ'ek.

Martin ¿Nik ez, nik ez!

Maisua ¿Zeñek ba?...

Martin Andre maistrak esan zigun.

Maisua Maistrak ez zizuten olakorik esango.

Martin {
Joxe { Bai jauna, bai...

Maisua Ori esan ba zuen ere, emen nere esana egin bear da ta ez beste iñorena. Zoazte irurok kale guzietara: goiko plazara, elizauñera, zumar-dira... ta aitzekirik gabe mutil guztiak eskolara etofi ditezela.

Martin ¿Nexkak ez?

Maisua Nexkak egin dezatela nai dutena.

Joxe (Albora). Nexkak ere etoriko dituk ba.

Maisua ¿Eal Zoazte aguro esandako lekuetara. ¿Korñ!

Martin Bai, jauna bai. (*Iru mutiñak korñka abitzen dira*).

Maisua Bañan ordu laurden bat baño lenago guztiok emen.

Potxolo ¿Ta barea altxatzen ba zaigu?

Maisua ¿Utikan! ¿Zer bare ta bareondo! (*Irurak biñjoaz*).

ZAZPIGAREN AGERALDIA

Maisua ta Maistra

Maistra (*Apain jantzita*). Maisu jauna: mutilak etofi ez  e? (*Maisuak erantzun gabe bestaldera begiratuko du*). Lenago esan dizut: gau  ez zirala etofiko; jezta bat ere!

Maisua (*Bat-batean burua itzultiaz*).  lru etofi dira bai! Ta beste guztiak...

Maistra  Ez ola jafi, gizona; ez, ez, gizona! Ostegun gizona dala esan nai det. Urte guztiko ostegunetan jai izaten da,  ta ostegun gizen egunez eskola? Ez da oiturik. Lenoxego mutilak ez dirala etofiko esan dizut.

Maisua (*Oso ben ta kopeta   unaz*). Aski dezu. Ez det geiago ezer jakin nai. Gaitzerdi...

Maistra  Gaitzerdi?

Maisua (*Ots aundiaz*). Gaitzerdi da mutilak ez dirala etofiko neri esatea.  Ba an (*Sutsu ta asare*) mutilai berai zuk adieraztea gaur ez dala eskolara etofi bear, ez dizut barkatzen!  O ek ez du izenik!...

Maistra Bai, o ek izena badu: gezu a.

Maisua (*Jaraituaz*). Ori egia da. Esaidazu;  ze ek agintzen du mutilekin, zuk ala nik?...

Maistra Nik ez; zuk ta... ostegun gizenak. Paketu zaitea. Nere aldetik, aitortu bear dizut   olaz ere, zure mutilai ez dietela, ez aitatu, ez agindu, ez esan, ez an, ez emen, ez orain, ez lenago, ez gaur ez atzo... ezertxore.

Maisua   ol! Ori minga a...

Maistra  Minga a? Ondo garbia daukat. (*Erakutsiaz*). Baraurik nago atzo ezkerotik. Esne pixka bat besterik ez det artu. Ba an gero, izebanean... tia, txokolatea, goxo ta txisto a.

Maisua Ez det ezer jan nai. Eskola ondoren ere beta gelditzen da nai   a meriendatzeko.

Maistra Bai ba an, ez zera nola nai jantzita joango alkatearen andrearen-gana-ta.

Maisua Gu nolana ta andreak... aundina.

Maistra Bai, «sonbrerua» jaztera noa ta geldi-geldi izebanera.

Maisua Ni geldiago.

Maistra Neskatxoai esan diet gaur bazkalondoan ez zala eskola-jardunik izango. Zuk beste o enbeste egin zenezakean. Lasa-lasa.

Maisua Zu lasa ta ni estu. Bakoitzak berea. (*Bi oaz*).

ZORTZIGAREN AGEĀALDIA

Mirentxu, Guadalupe, Terexa-txiki ta beste nexka batzuk

- Miren** *(Guztiak batean ta ta korika sartzen dira zefiek lenago Maistra'ren alxia ikutu).* ¡Nik aŕena! *(Alxia edo olako zerbait ikutuaz).*
- Lupe** ¡Nik ere bail *(Onek ere ikutzen du ta ondoren beste guztŕak alkaŕen leian, ixtiŕu goŕia ateriaz).*
- Guztiak** ¡Ikutu, ikutu, ikutu, ikutu!...
- Batek** Terexa-txiki azken.
- Terexa** Ez andrea: Lupita'k bultza egin zidan.
- Lupe** ¡No seŕora! Ik baŕio askozaz lenago ikutu diŕat.
- Miren** Ez eŕitarik egin. Eskolara etoŕi gaitun; ¡au poxa! Jostatzeko toki ohea den ta ez goiko plaza, mutil gaiztoz betea.
- Guztiak** ¡Bai, bail
- Lupe** Oŕegatik amatxok ez zidan etxetik ateratzen uzten eskolarik ez dago-nean.
- Batek** Neri ere ez. Etxeko lanak, soŕekoak garbitu ta josi ta ola, ŕzer uste den? egiten dizkiŕat.
- Beste batek** Neri ba, ez ziŕan etxetik ateratzen uzten iŕnudeakin ez ba da ta... lotsatzen naun...
- Guztiak** ¡Iŕnudea! ¡Iŕnudea!
- Terexa** Ez gaitun ume zirtziŕak besoetan eramatekoak. ¡Alajana! Aurten bizi-kletan ibiltzen ikasi bear diŕat-eta.
- Lupe** Nere amatxo'k zion bizikleta mutiŕentzako dala.
- Terexa** Ba, nere aizpa ibiltzen den, ta bai joan ere oso uŕuti, uŕutira, erori gabe.
- Miren** Goazeman jostatzera. Dendetara...
- Batek** Ez, ez; politaogoa da «txingoka».
- Guztiak** Ez, ez...
- Terexa** Goazeman «¡ala kinkilin ala!»
- Guztiak** ¡Bai, bai, goazen! *(Eskuz-esku eldurik abestutzen dute).*

Ala kinkilin ala
Ala samur dala
Terexa txikia
Bira bestaldera.

Ostegun gizen dala
Ostiral mea dala
Larunbat erdi-loria
Igande iŕnauteria...
Etc., etc.

BEATZIGAREN AGEÑALDIA

Lengoak ta Maisua

Maisua (*Arituta*). ¡Nexkak!... ¡Utsa! Nexkak nai ez ta mutilak etoñi ez.

Guztiak Afatsaldeon, maisu jauna.

Maisua ¡Afatsalde txar! ¿Nun dira mutilak?

Batek Goiko plazan.

Maisua ¿Zer egiten dute eskolara etoñi gabe?

Terexa An ari dira zagi-dantzan.

Maisua ¿Zagi-dantzan?... Beingoan zagia lertuko balitzaie...

Batzuek ¡Bai, bail Jo ta jo ari dira makilaz.

Terexa Mutilak jostatzen-ta ¿guri ere utziko al digu?...

Maisua ¿Zer?

Terexa Jostatzen... (*Abestuaz*).

Ostegun gizen dala,
ostiral mea dala...

Maisua (*Zakar*). Gaur eskola dala...

Terexa Biar estiral mea; ¿beoñen eguna alda?

Maisua Ez det nik egitekorik zuekin. ¡Edeñ da komeria! Ni maistraren ordezt
ta maistra...

AMARGAREN AGEÑALDIA

Maistra (*Zearo apaindurik ginbail ta guzti. Aoazabalik*). Bañan, bañan... ¿Zer
da au?

Nexkak Afatsaldeon, Andre Maistra.

Maisua Orain izebarengana, zoaz... «tia», jez! tila aatzera.

Maistra ¿Zenek agindu dizute gaur eskolara etortzeko?

Maisua Zu txukundu zera txistora jatera joateko ta lukainkak egokitu.

Maistra (*Gero ta asateago*). ¿Gaur eskolarik ez zala ez al nizuten esan?...
Ordea, ordea...

- Maisua* Or ez; emen dira; txokolatea eztuko zaizu izebaren etxean.
- Maistra* Bañan, ¿zeñek bidali zaituzte gaur eskolara?
- Maisua* Sonbrero, ginbail ofekin uxatu egiten dituzu zure usokumeak, domin-giloak txoriak bezela. Kendu ezazu ta erantzungo dizute.
- Maistra* Aski da (*Sombrerua kenduaz*) (*Nexkai*) ¿Zeñek agindu-ta etori zerate gaur afatsaldean eskolara?.. ¡Egia esan!
- Neskak* Bai andrea, bai...
- Maisua* ¿Ara, ikusten? Asi dira...
- Batek* Maisu jaunak esan omen du.
- Maisua* (*Asare*) ¡Ez, ez!
- Maistra* (*Amoñuaz*) Maisukeria egin didazu.
- Maisua* Ez, ez, barkatu; ez dizut ezer egin. Ikusten dezu; nere mutilak «pipe-
ra» egin didate ta...
- Maistra* Pipeñ miña. Orain ere zure mutilen gaiztakeria da au guztia. (*Bat-ba-
tean, zerbaitzaz oroituaz*) ¡A bai! Martin Gaizto 'k ta Joxe Biurik asma-
tutako gezurén bat da guztia.
- Nexkak* Bai bai; Martin' ek esan digu etortzeko; ta Joxe' k.
- Maistra* ¿Ikusten?... Ba... (*Maisuari*) Zure baimenaz bi mutil oiek gogor zigor-
tuko ditut.
- Maisua* Gaur ez det agintzen; gaur ostegun gizenak agintzen du.
- Maistra* Zeñek agintzen duan ikusiko degu. (*Martin, Joxe ta Potxolo agertzen dira*)

AMAIKAGAREN AGEÑALDIA

Lengoak ta Martin, Joxe ta Potxolo

- Irurok* (*Korika sartuaz*) Ba-datoz bestea.
- Maisua* Ba-zenuen etortzeko garaia.
- Martin* (*Arnasa artuaz*) Eri guztian bila ibili gera.
- Maistra* Estu artu bea ditugu urrena guregatik para egin ez dezaten.—(*Mutilak*)
Zer ibili zeraten badakigu.
- Maisua* Bai, jañi zaitezte belauniko(*Iru mutilak belaunikatzen dira*).
- Maistra* Ori ez da ezer. Nik esango diot alkateari irurok lotu-ta kartzelara era-
man-arazteko.

Nexkak (*Ikaraturik*) ¡Kartzela! ¡Kartzela!
Potxolo Nik ez det ezer egin.
Maisua Altxa zaitez, altxa: zuk ez dezu erurik.
Joxe Nik ere ez nuen nai...
Maistra (*Martin' i*) Zu izango ziran zirikatzailea.
Martin Ez jauna... bestea... zera... ez jauna.
Maistra Ni andrea naiz.
Martin Bai andrea bai, zera... ostegun gizona da ta.

AMABIGAREN AGEALDIA

Lengoak ta Alguazila

Nexkak (*Alguazila sarlzen ikusten dutelarik*) ¡Aguazila! ¡Aguazila! ¡Aguazila!
Alguazila Afatsalde on. Alkate jaunaren izenean...
Maistra ¿Nere bila bidali al zaitu etxekoandre? Beriala ba noala. Lenago mutil oiek egin duten gaiztakeria...
Alguazila Alkate jaunaren izenean, oraintxe bertan eskola giltzaz itxitzeko ta nexka-mutil guztiok plazara dijoazola ango jai edefak ikustera.
Nexka-mutilak ¡Ori oril! ¡Aufa! ¡Goazen! (*Olako ta antzeko istilu ta algarak entzungo dira*)
Maisua Alkate jaunak agintzen du ta zoazte.
Maixtra Orixe nai nuen nik ere ba.
(*Ontan txistu ta tanbofaren otsa entungo da ta dantzarien zalapartak; eskolan dauden nexkak-mutilak arroturik, pozaren-pozaz karaxika ta dantzan abituko diru berak ere alaitasun aundian.*)

4000

4/8

AZKENENGO AGEÑALDIA

Alguazila (Atetik dantzaria) ¡Atozte onera! (Txistu-jotzaileak, ta 6, 8 edo geiago dantzari zagi ta guzti sartzen dira bere dantza ta abestietan diardutelarik. Nai izan ezkeru Zagi-dantzaren ordeiz beste edozein dantzatu ala abestu liteke.)

ZAGI - DANTZA

¡Ea bada, mutilak
erabiliki makiak!

¡Ea bada, mutilak
erabili zar koak!

Urtean beingo
Urtean beingo
da ostegun gizona

¡Ai zagia, zagia, zagia,
ai zagia puztua;
¡Ai zagia, zagia, zagia,
Ai zagia puztua!

Nun da ba, nun da ba,
aspaldiko zagia.

OIALA

C-15



